

Startinnova IX - Kostu egitura

Proiektu hau aurrera ateratzeko, gure enpresak zenbait gasturi aurre egiteko gai izan behar du.

Hasteko, kafetegian egin behar dugun inbertsioa nahiko gastu handia da.

Alde batetik, kostu finkoak ordaindu behar ditugun guztiak dira, gure produktuak saldu edo ez; hemen sartuko lirateke internet, soldata finkoak, zergak, argia, ura, makineria-gastuak, ordenagailua eta alokairua.



Bestalde, kostu aldakorrak aldatzen direnak dira, ekoizpenari edo salmentari dagokionez; adibidez, produktuak eta osagaiak, gure salmenta-kopuruaren araberakoak baitira.

Gure salmenten kopurua handitu ahala lortzen ditugun aurrezkiak dira eskalako-ekonomia bat.

Horren adibide da gozogintzako produktu merkeagoak ekoiztea eta saltzea. Horrela, hainbat produkturen unitate bakoitzaren ekoizpen-kostua murriztuko genuke, eta, hori dela eta, denborak aurrera egin ahala, irabazi gehiago izango genituzke, bezeroek gehiago erosiko bailukete.

Hedapen-ekonomia lortzeko, eta gure kostuak murrizteko edo mantentzeko, produktu aniztasun handiagoa saltzea da aukerarik onena. Gure kafetegiak, kafeak eta gozogintzako produktuak eskaintzeaz gain, produktu osasungarriak eta gosariak ere eskainiko ditu. Modu honetan, osagaietan kostuak eta denbora gehiago inbertitzen baditugu ere, onurak izango ditugu; izan ere, diru-sarrerak handituko ditugu.



	<i>Kostuak</i>	<i>Unitateak</i>	Kostu totala
Ordenagailua	300€	1	300€
Lokala	850€	1	850€
Soldatak	1050€	4	4200€
Zerbitzuak (argia, ura, gas...)	750€	1	750€
Makineria	70€	1	70€
			6170€

